

Madrid-en ez dute ezer ematen

Deia, 1977-08-19.

Hau ba genekien aspaldi.

Baina orain salerosketan ohitua den katalan eta politikoko batek esan du: "Generalitat"-eko Lehendakari den Josep Tarradellas jaunak. Honek ba du hontaz, lehen izandakoez gainera, azken aste hoietako esperientzia.

Guk, euskaldunok, ere ba dugu gure luza-beltza.

Baina hau ez da Espainia-ko lurretan bakarrik gertatzen.

Gaur bertan munduko hiru alderdietatik datoz agintekeriaren aurkako borrokaren oihartzunak: korsoak, Frantziaren aurka; Georjiarrek, sobietarrek zapalduta, eta portorrikoarrak USA-ren menpean.

Ba da batetik bestera diferentziarik, baina herri hoiek denak askatasunaren eske ari dira gaur.

Eta nagusi hoietako inork ez du ezer eman nahi.

Frantziaren zentralismoaren probak ba ditugu geok, mugaz hango eta hemengoak; sobietarrez, hitzegiterik ere ez du merezi, zentzua duen inork ez baitu hoiien askatasun izpi bat ere inola espero; eta USA-z, berriz, espero, bai, egin dugu aspaldi, egiten dugu oraindik noizean behin, baina gure askatasuna haienarekin batera datorrenean bakarrik etortzen zaigu zerbait, eta hau oso pittinka gertatzen denez, propaganda hutsak eraman digu.

Agintzen dagoenak ez du berez ezer ematen.

Hau da, noski, Tarradellas ohoragarriak esan nahi zuena, eta ez zaio arrazoirik falta. Hemen berezi behar dena, zera da, borroka-bidea.

Ni, demokrata naizenez, legearen aldekoa naiz; baina, legezkoa, legezko biderik dagoenean; honetarako biderik uzten ez denean, gizonak eta herriak ba dute gainez egiteko demokrata den modu bat; guda demokratikorik egin da; modu hau bidezkoa bezala aitortu da askotan, gainera, baina gehienetan irabazi eta gero etorri da ukatzen zitzaion aitormena (Irlanda, India, Argelia e.a.), galtzaileak ez baitu inoiz inondik arrazoi aitormenik arkitzen. Baina orain eta hemengoaz ari geranez, ba al dugu euskaldunok hemen eta gaur egitazko arrazoibidez zerbait lortzeko itxaropenik?

Korsoak bere lurrian, georjiarrek eta portorrikoarrak berean hainbeste, esan nahi dut.

Ba dirudi gaur itxaropenik ba dela. Korsoak gaur bertan baino gehiago; oraindik Errusi Handiaren azpian dauden georjiarrek baino gehiago, noski; eta Puerto Rico-ko ugarteian bizi den herriaz, berriz, erabateko beste hauzian sartzen gara, kolonialismo berezi baten alorrean: dituen 3.000.000 biztanleetatik *erdiak* ipar-Amerikarrek ordaintzen dieten seguritate sozialetatik bizi dira.

Hala ere, kolonialismo berri hau bigunagoa bada ere, portorrikoarrak ONU-raino jo dute askatasun eske.

Hemen asmo bat: ONU-ra, eta gu, zergatik ez?

Askatasun Batzorde bat ba da ONU-n kolonialismoaren azpian dauden herrien askatasun-bideak egiten laguntzeko gertua.

Batek baino gehiagok esango du gurea ez dela kolonialismo hauzi bat. Eta nik esango nuke, baietz.

Historia aldetik, kolonialismoak dituen bide eta etapa guztietatik pasa gera: hizkuntzaren zapalkuntza, osorik koloniala izan da, eta kulturaren beste alderdietan ere genozidioaren bide-berdin-hertsia-meharretatik ibiltarazi gaituzte.

Eta, zergatik ez dugu ONU-ra jotzen?

Orain, ONU-n gure herriaren hauzia azalgarri izan dedin, beharko dira aitapuntakoak. Honelakoak, errazago aurkitzen dituzte larruz beltzak edo horiak diren herriak. Baina guk ere, arki ditzakegu, koloni izan diren herrien babes; hau lortzea ez da, behar bada, zaila izango.

ONU-tik pasatzeak ez digu kalterik egingo; eta presio hau lagungarri izango litzake.

Gogora ditzagun Tarradellas ohoretsuak esan berri dituen hitzak: berez, "Madrid-en ez dute ezer ematen".